UDAL KIROLDEGIKO INSTALAZIOETARAKO EZPALA EROSTEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- Xedea
Kontratuaren xedea da zur birjina zatikatuz lortutako ezpalak hornitzea. Ezpal horiek Hernaniko Elkano kaleko 27an dagoen Udal Kiroldegiko erregai gisa erabiltzeko izango dira.

2.- Epea
Kontratuaren iraupena **URTEBETEKOA (1)** izango da, HIRU urtez luzagarria, urtez urte (1+1+1).

3.- Prezioa
Gehienezko lizitazio prezioa toneladako : **100,00€ + BEZa (21,00€)**.

4.- Zenbatetsitako gastua
880 tona.
880 t x 121€/t = 106.480 € BEZ barne

5.- Entregatzeko epea

Hornitzaileak konpromiso hau hartzen du: Hernaniko Udal Kiroldegiko langileek posta elektronikoz bidalitako eskaera jaso eta 6 egun naturaleko epean egingo duela erregai kargamentuaren entrega.

Entrega bakoitzean garraio-agiri bat emango die hornitzaileak Hernaniko Udal Kiroldegiko langileei, ondorengo gutxieneko informazioa jasoko duena:

- Entrega egin zaion instalazioa (Kiroldegia)
- Produktuaren jatorrizko instalazioa
- Hornitutako produktuaren identifikazioa
- Entrega eguna eta ordua
- Entregatutako kopurua (tonak) eta hezetasuna* (%)
- Oharrak
- Hornidura egin duen langilearen eta materiala jaso duen udal-langilearen identifikazioa eta sinadurak

Hornitutako ezpalaren hezetasuna neurketarako egokia den gailuarekin egingo da, Hernaniko kiroldegira garraioa bertaratutakoan, udal-langileen gidaritzapean. Materialaren neurri eta purutasuna bisualki baloratuko da.

6.- Erregaitarako biomasaren jatorria
Hornitutako ezpalak zur birjinaren prozesatze mekanikoaren emaitza izango dira. Ezpalak honako hauek zatituta lortuko dira: adarrik gabeko koniferak edo hostozabalen enborrak, hostorik gabeko hostozabalen enborrak, adardunak, hostozabalen mozketen hondakinak (hostorik gabe edo hosto lehorrekin), arbazta eta kosteroak eta kalitate handiko ezpalak ematen dituen lehen mailako bihurketaren ondoriozko beste hondakin batzuk.

7.- Neurriak

Ezpalen neurriei dagokienez, CEN/TS 14961 zehaztapen teknikoetara joko dugu.
Hornitutako ezpalak P45 motakoak izan behar dute.
Ezpalen dimentsio-motek CEN/TS 14961 zehaztapen teknikoa bete behar dute.

Neurri motak (mm)	Partikularen neurriaren osaera (%)		
	Kopuru nagusia Pisuaren >%80	Partikula fina <%5	Partikula larria <%1
P16	3.15<=P<=16	< 1 mm	>45 mm,denak <85mm
P45	3.15<=P<=45	< 1 mm	>63 mm
P63	3.15<=P<=63	< 1 mm	>100 mm
P100	3.15<=P<=100	< 1 mm	>200 mm

8.- Purutasuna
Hornitutako ezpalek ez dute gorputz arrotzik izan behar: ez iltzerik, ez alanbrerik, ez bernorik ez eta bestelako objetu metalikorik ere.

9.- Kargamentuaren hezetasuna eta pisua
Hornitzen diren ezpalek ez dute inola ere %35tik gorako hezetasunik izango, eta karga bakoitzaren pisua 20 – 22 tonakoa izan beharko du.

10.- Ordainketak
Hernaniko Udalak faktura jaso eta 30 eguneko epean egingo du ordainketa. Adostutako epean ordaintzen ez badu, hornitzaileak hornidura-zerbitzua eteteko eskubidea izango du, eta gaur egungo arauen araberako berandutze-interesak erreklamatzekoa.

11.- Adostutakoarekin bat ez datozen hornidurak
Hernaniko Udalak ez du adostutakoarekin bat ez datozen ezpal kargamendurik ordainduko.
Materialaren egokitasunak dudak sortzen baditu, hornitzaileak ondorengo entseguak egingo ditu, Hernaniko udalarentzat inongo gainkosturik gabe:

Partikularen neurria UNE- EN 15149-1 eta 2	
Hezetasuna (M) UNE- EN 14774-2	
Errautsen edukia (% pisua lehorrean) DIN-EN 14775	
Itxurazko dentsitatea (Kg/m ^{3} itxurazkoa) UNE-EN 15103	
Bero-ahalmena (MJ/kg) UNE-EN 14918	

UNE-EN 15104	

Tokia eta eguna

Izendatutako pertsonaren sinadura